

Mikel Zurloano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

## Susperraldiaren ajea

**U**da aurreko adierazle ugari munduko ekonomiaren krisiaren galga irudikatzen dute: AEBetako uztaileko langabeziaren jaitsiera lehen aldiz hamabost hilabete ondoren, Erresuma Batuko industri produkzioa mantentzea, OECDren indize aurreratuaren iragarpen baikorrak, eta abar. Laster batean hondo joera pizteko joera har lezake ekonomia globalak bi urteetako atzeraldia eta gero. Nolanahi ere, ikusteko dago krisiaren behin betiko itxieraren lehen urratsaren aurrean gauden edo epe laburreko hobekuntza baino ez den. Orain arte hartutako neurrien apaltasunak eta sakoneko mugimenduek bigarren aukeraren alde egiten dute.

Hasteko munduko finantza sistema ez da *garbitu*. Abuztu hasierako AIG erraldoiaren galeren iragarpenak eta EBZak zein NMFak aktiboen depreziazioez egindako aurreikuspenek hori erakusten dute. Europako ekialdeko herrialde batzuen finantza krisi larriak ere bere horretan dirau. Baina, finantzaz haratago munduko ekonomiaren oinarriak ezin dira lehengoak izan. AEBetan etxeko ekonomiek ez dute berriz ere gehiegizko zorpetzera joko, Txinako ereduak birzentratzeko joera izango du eta atzeraldiak Europaren artikulazio eta politiken koordinazio eza areagotuko ditu. Honek guztiak ez du lagunduko hazkundearen bidea berrezartzeko dinamikan.



DANI BLANCO

Bestalde, krisiaren irteera ematekotan ez da hutsaren truke izango. Egungo krisiaren eragin nabarmenek hiru esparrutan iraungo dute gutxienez. Lan merkatuan, langabezi tasa garaiak luzatuko dira eta malgutasuna areagotu egingo da. Zor publikoak gora egiteak estatuaren krisi fiskala eragin lezake hainbat herrialdetan, ongizate estatua kinka larrian utziz. Hirugarrenez, kapitalen etekin tasa orokorra beherantz akuilatu du krisiak. Kapitalismoa bere ohiko dinamika *normalera* itzultzeko beharrezkoa litzateke kapitalaren errentagarritasuna berrezartzea eta defizit publikoa irenstea, beti ere langabeziaren jaitsiera lortuz, maila apalean bada ere.

Haatik, hiru helburu hauek batearazinak dira gaur egun. Lanaren produktibitatea beherantz dator azkenaldian ia jarduera ekonomikoa bera beste, enpresen errentagarritasuna areago jaitsiaraziz. NMFak 2011n langabeziaren gailurra etorriko dela baieztean, errentagarritasuna berreskuratzeko langabeziaren gorakada *iraunaraztea* beharrezkoa dela onartzen ari da. Susperraldia ematekotan enplegua igotzeke etorriko da, beraz langabezia maila garaian mantenduz. Bestalde, defizita murrizteko bidezko erreforma fiskal birbanatzailea tresna egokia litzateke. Baina, mugimendu sozialak ekiditen ez badu helburu hori gastu soziala berriz ere murriztuz beteko da. ■



Susperraldia ematekotan  
enplegua igotzeke etorriko da,  
beraz langabezia maila  
garaian mantenduz



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ataundartzat onena, zendu ondorengo entzun eta irakurri

ditudanetan tolosartua. Ez nuen inoiz harreman zuzenik izan berarekin, gure gaztaroa laburtzen beste askoren artean eragingarria izan zen harekin, euskara bikain hitz egiten omen zuen apaizgai goiherriar abertzalearekin. Martutenetik salbuespeneko zoriak libratu zuen, gu konturatzerako bestalderainokoa egina zuen. Noizean behin izaten genuen bere berri “heldu zen udaberria kantuz hasi enaria lagunak preso jausi direla iritsi zait gaur berria” koplak koadrilan doinutu eta Imanolek gure gitarra jole doituenaekin musikatu

## Txato Agirre

ziraden elurrak narrotu otso zakurrak oraino ere minberaz daude ene lagunen hezurak”. Lovaina utzi, etxeratu eta politiko profesional gorbatadunen eremuan aurkitu zuen bere lekua, elkar gurutzatu gabe jarraitu genuen. “Lainoak ziren odoldu gizon prestuak isildu behin berriro ere gure Sisifo maldaz behera amildu”. Ez dira gutxi izan koplak horiek gure ahotsetan izandako bertsioak, mahai ostetan bereziki. Eta gaztaroan berak besteren artean utzi arrastoak bide luzea egin du guban, organikoa bilakatu arteraino. ■

eta publiko egin zituenak. Eszisio zikliko baten erdian geunden, hondartza ezberdinetan. “Heldu